



PROIEKTUAREN FITXA / FICHA DE PROYECTO

Izenburua - Título

B-71

Egilea - Autor

Jon Urraza

Generoa - Género

Drama sozial errealista komedia ukituarekin

Tagline

Gure ametsak ez dira erreko

Target - Merkatu objektiboa

25-60

Proiektua nork zuzenduko lukeen - Posible director del proyecto

Lander Camarero eta Jon Urraza

Aktore nagusiak, nortzuk - Posibles protagonistas

Jox Berasategi, Jon Urraza, Itziar Ituño, Mikel Laskurain, Lizar Begoña, Loli Astoreka, Nerea Guijarrubia

Egilearen CV laburra - Breve CV del autor

Soy actor, escribo, dirijo, doy clase de interpretación. Diplomado en Arte Dramático y Master de Artes y Ciencias del Espectáculo UPV/EHU, donde obtuve un sobresaliente con el trabajo final sobre Dirección de Actores en Cine y la planificación de su aprendizaje.

En el Doctorado investigo el Cine de Mike Leigh, su método de creación cinematográfica a través de la dirección de actores y su estética de la interpretación. Como autor, he sido dos veces nominado a los PREMIOS MAX y he ganado el Premio Café Bilbao por el guion de *"Morritson eta Gartzia"* que después estrené en teatro y adapté, dirigí y protagonicé su versión para la pantalla.

DIRECTOR-AUTOR:

LARGOMETRAJES:

"MORRITSON ETA GARTZIA" (2013) largometraje.

Sección oficial a concurso en los FESTIVALES: Zinegoak 2013 (Bilbao), El lugar sin límites 2013 (Ecuador), Andalesgay 2013 (Andalucía).

CORTOMETRAJES:

"ASTELEHENA" (2018) corto en fase de postproducción.

"BITARTEKARITZA ISTORIO BAT" (2016) cortometraje. FESTIVALES: Shorts in-fest 2017 (Madrid), Cinema Grand Prix 2017 (Indonesia), Errenteria 2017, 3Little Wolves film festival 2016 (Slovenija), Euskal Zine bilera 2016 (Lekeitio), Ficnova 2016, Ikuska 2016 (Pasaia)

"ARAZOA" (2016) cortometraje filmado con alumnos de secundaria de la ikastola Alzaga.

También he escrito, dirigido y protagonizado las obras de teatro: "Morritson eta gartzia" (nom MAX 2013), "Bestela ondo... ezta? (nom MAX 2011), "BoB? Nor da BoB?"...

INTERPRETE en CINE y TV:

"PESCA DEL LANGOSTINO EN CORRO" (2017 fake-doc publicidad Pescanova), "TXARRIBODA" (2015, secundario), "LASA ETA ZABALA" (2014, reparto), "MORRITSON & GARTZIA" (2103, protagonista). "CUENTAME" (2011, episódico), "LQSA" (2011, ep), "GOENKALE" (2011, temp. XVII)...

MEMORIA

gaia

Pertsona batzuk kooperatiba proiektu txiki bat martxan jartzeko, baliagarritasun ekonomikoari buruzko oniritzia jaso dute, baina landatu eta saldu nahi duten produktua, definizio kaskarreko egoera legala dauka. Krisialditik ateratzeko eta langabezia saihesteko ekintzaileak izan behar omen gara, baina erreza al da? Zeintzuk traba gainditu behar dira? Honek norbanakoaren askatasun eta independentziara garamatza, guztiok sakonki barneratuta daukagun sistemaren funtzionamendu, estatus eta aldaezintasunaren onarpenaren aurrean. Horregatik kannabisa, gizartean bolo-bolo dabilen zerbait delako baina lege barruan honekin ziurtasunez lan egitea ezinezkoa delako gaur egun. Guzti honen atzean dagoen moralitate bikoitza, zuzenbidea eta eskubideekin lotura gutxi daukana, eta inpotentzia handia eragiten duena proiektu bat aurrera atera nahi duenarengan, kritikatzeko balio beharko luke. Horrela, aurrera egin ahal izateko bi aukera besterik ez zaizkie geldituko edo gezurretan, estalian aritu edo oztopoak gainditzeko saiatu euren bide propioa abian jarritz, etengabe horma berdinen kontra kolpatuz.

izaera

Honekin, borondate errealistadun fikziozko drama sozial zintzoa eraikitzeko asmoa daukat, izaera dramatiko duen umorez beteriko istorioa, narrazioari eta pertsonaien harremanen bilakaerari garrantzi osoa emanez, kalean dauden gaiak kontakizunaren ibilbidearen baitan originaltasunarekin jorratzen saiatuz, kannabis klubetatik abiatuz, krisialdia, etxe gabetzeak, txirotasun energetikoa, goi ikasketen garestitzea, ekintzailetasuna, independentzia eta erabakitzeko eskubidea, eta dena adiskidetasun eta famili harreman interesgarrien baitan, famili mota ezberdinak eta hauen desegituraketa ere landuz, baina esan bezala, kontakizunari garrantzi guztia emanez eta honetatik aldendu barik, dramatik abiatuz baina umorea erabiliz kontakizun entretenigarri eta optimista jorrazteko asmoz, ikuslea itxaropen sentsazio on batekin lagatzen duena.

Honetarako pertsonai interesgarriak, sinesgarriak eta ikuslearekin enpatia eragin dezaketenak, sortu eta garatzen saiatu, dialogoaren benetakotasunari erabateko garrantzia emanez, kontakizunari egiantzekotasun osoa emateko helburuarekin, eta ondorioz honek, aktoreekin lan egiteko garaian berebiziko garrantzia izango luke, hauek errealismo sozialak eskatzen duen interpretazioaren estetikara zeharo moldatzea eta horren alde eurekin lan egitea, eta noski lan hau gidoitik hasten da eta gero aktoreen zuzendaritzaren bidez landu beharko litzateke, pertsonaia, izaera, erreakzio eta harreman *autentikoak* lortu ahal izateko.

SINOPSISIA

Andoni *Gipu* Gaztelurrutiak, Ander bere bikotea galdu berri du minbiziaren ondorioz eta Xabi *Opari* Arriola banandu berri da. Biek ala biek hondoa jo dute, euren proiektu enpresarialek inoiz ez dute funtzionatu izan eta aspaldi daramate inoren kontura lan egin gabe eta euren bizitza laboralean aspaldi ez da kotizazio berririk agertu, gaur egun beraz, besteren konturako lana aurkitzea ia ezinezkoa litzateke beraientzat. Aspaldiko ezin ikusiak alboratu eta Nereren laguntzarekin, Gipuk amestutako proiektua martxan jarriko dute: Marihuana ekologikoa landatu, saldu eta honen erabilpen terapeutiko, gastronomiko eta sozialak garatzeko ikastaroak eskainiko dituen kooperatiba xumea sortzen ahaleginduko dira, belarraren erabilpena erantzukizunez gizarteratzeko asmoarekin. Inorengandik ezkutatu gabe, lege barruan eta dagozkien zergak ordainduz bizibide duina ateratzeko helburuarekin abiatuko dira, baina traba legal, burokratiko eta sozial handiak aurkituko dituzte.

Saturraraneko baratze ekologiko xume bat, norbanakoek behetik gora abiatutako erabakitze eskubidearen eredu bihurtuko da eta alegalitatearen adierazgarri den kannabisa, honen sinbolo, Gandhik itsasoko uretatik gatza ateratzea erabaki zuenean bezala. Biologian doktorea eta Kannabisan aditua den 50 urteko, nekazari ekologiko, homosexual, alargun batek; banaketa prozesuan dabilen bere koinatu futbol jokalariori, frakasatu, galtzaile, amesti, langabeak eta bere funtzionario lana kolokan jartzeraino helduko den honen arreba konprometitu, burugogorak; Gipuren alabaren sare sozial bidezko ezinbesteko laguntzarekin, jendeari gauzak beste modu batez egin ahal direla demostratuko diote, amore ematea euren bide orritik ezabatuz. Zulorik hondoenetik hasita ere, oztopo guztien kontra euren ametsak bizitza duin bat izateko aukeraren oinarri bihurtzen ahaleginduko dira. Euren kabuz abiatutako enpresa proiektu txikiari jarritako trabek, herritar bakoitzaren askatasun eta eskubideen aldeko borroka bultzaraziko dute, norbanakoa eta boterearen arteko harreman bertikalaren funtsak irudimen handiz kolokan jarri. Agian azkenean ez dute gizartea aldatuko, agian frogatuko dute *sistemak* nahiago duela sistema berari tranpak egitea, sistematik at independente bizi nahi izatea baino, agian horregatik legearen mehatxua saihesteko, hasierako asmo zintzoen koherentzia apur bat traizionatu beharko dute... Legearen barruan sistemari gol bikain txikia sartuz. Agian bai, baina eurek guztiek, euren baitan, pertsona askeak eta independenteak izan direla sentituko dute, euren buruekiko errespetua berreskuratuz, honela euren inguruko errespetua eta maitasuna berreskuratuz ere.